

## 15. eta 16. GAIAK

1.- Ze base mota erabiltzen dugu lesio hezeetarako eta exudatiboetarako?

Likidoen artean → lozioa

Olioen artean → krema

2.- Zein da era topikoan aurpegian emateko erabiltzen den kortikoidea?

Hidrokortisona

3.- Zeintzuk dira keratolitiko moduan erabiltzen diren printzipio eraginkorrak (topikoki)?

Azido salizilikoa eta retinoideak.

4.- Zeintzuk dira eragin astringentea duten printzipio eraginkorrak?

Zink eta kobre sulfatoa.

5.- Zeintzuk dira gomendatzen diren antiseptikoak?

Klorhexidina eta pobidona iodatua.

6.- Zeintzuk dira efektu zikloplejikoak duten farmakoak begian bertan jartzerakoan?

Antikolinergikoak: atropina eta homatropina.

7.- Zer da diabetes gatzgabea eta nola tratatzen da?

Basopresinaren eskasiagatik agertzen den patologia da eta basopresinaren analogoarekin tratatzen da: DDAVP edo desmopresina sudur-tantetan.

8.- Zeintzuk dira oxitozinaren indikazioak?

Erditzean uzurdura ziklikoak eragiteko indarra eta erritmoa handitzea. Mihipeko bidez edo benabarneko bidez perfusio jarraian.

9.- Zertarako erabiltzen dugu TSH edo tirotropina?

Hipo eta hipertiroidismoa diagnostikatzeko eta tratamenduaren eraginkortasuna neurtzeko.

10.- Ze bi farmako erabiltzen ditugu prostata-kartzinoma aurreraturako?

Leuprorelina eta flutamida.

11.- Ze farmako mota da bromokriptina eta zeintzuk dira bere indikazioak?

Agonista dopaminergikoa. Puerperioan esne-jariakina blokeatzeko, prolaktinomak eta akromegalia tratatzeko, galaktorrea tratatzeko eta baita Parkinson gaixotasunaren tratamendurako ere.

12.- Zein ez da hipertiroidismorako erabiltzen den farmakoa?

- a) Lebo-tiroxina
- b) Karbimazol
- c) Danazol
- d) Flurokortisona

13.- Zein ez da bularreko kartzinoma aurreratua tratatzeko erabiltzen den farmakoa?

- a) Tamoxifenoa
- b) Progesterona
- c) Flutamida
- d) Guztiak

14.- Zeintzuk dira HMG-CoA-reduktasa entzima inhibitzen duten farmakoak eta zein da bere indikazioa?

Estatinak: lobastatina, sinbastatina, probastatina, atorbastatina. Hipolipemiantek dira. Kolesterolaren sintesirako beharrezkoa den entzima inhibituz, kolesterol maila jaisten dute. Ia ez dute triglizeridoen mailar jaisten.

15.- Zein da hezueri akutuaren tratamendua?

Koltzizina (inh migrazio leukozitaria), AINEak (AAS salbu) eta ACTH erdi-sintetikoa: tetrakosaktidoa